

**ERRONKAK, INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN ETA DESGAITASUNA DUTEN
EMAKUMEENGANAKO ARRETAN**
DESAFÍOS EN LA ATENCIÓN A LAS MUJERES CON DISCAPACIDAD VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA

Sala BBK, Don Diego López Haroko Kale Nagusia, 19-21, 48001 Bilbo
Sala BBK, Gran Vía López de Haro 19-21. Bilbao, **48001**
2019ko ekainaren 14an – 14 de junio 2019



NOR GARA?

Buruko gaixoen eta haien senitartekoen elkarteen Euskadiko Federazioa da FEDEAFES. 1987an sortu zen, eta, 1998tik, onura publikoaren deklarazioa dauka.

Gaur egun, 9.000 lagun baino gehiago ordezkatzan ditugu, EAE guztian. 3.000 familia baino gehiago ditugu elkartera bildurik, eta, elkarteen eta federazioaren artean, 7.000 baino gehiago dira gure onuradunak.

Nor gauden FEDEAFES barruan:

- AGIFES, Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarte
- ASAFES, Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarte
- ASASAM, Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkarte
- AVIFES, Buruko Gaixotasuna duten pertsonen eta Senitartekoen Bizkaiko elkarte.

Elkarte horiek eta Fedeaafes elkarte-bilgunea funtsezkoak dira buruko gaixoei eta haien senitartekoei aholkua eta laguntasuna emateko. Parte hartzeko leku bat eskaintzen diete herritarrei, eta kalitateko zerbitzuak kudeatu: harrera egiteko eta bidea erakusteko zerbitzuak, beren kasa bizitzen laguntzeko, familiari laguntzeko, zaintzapeko etxebizitzak, lanean hasteko programak, eguneko zentroak, zentro okupazionalak, aisialdi inklusiborako programak.

MISIOA:

Buruko gaixoen eta haien senitartekoen elkarteen Euskadiko Federazioa da FEDEFES, eta bere xedea du gaixoen eta senitartekoen bizi-kalitatea hobetzeko ekimenetan ikerketa, trukea, ikaskuntza eta berrikuntza sortzea; Bizi Kalitateko Ereduaren barruan politikak eta esperientziak bultzatzea eta zabaltzea; gaixoen eta senitartekoen duintasuna eta eskubideak defendatzea eta aldarrikatzea; gizartea sentsibilizatzea; hainbat foro eta saretan parte hartzea; eta gaixo eta senitartekoentzat mesedegarriak izango diren politika publikoak eskatzea.

GURE JARDUERAREN ARDATZAK

- Kolektiboaren ordezkari-lanak egitea autonomia-erkidegoan.
- Gaixoen eta senitartekoen eskubideen aldarria eta defentsa egitea.
- Elkartzeko joera indartzea, federazioko elkarteen artean ikasgaiak, berrikuntza eta ikerketak trukatzuz, gaixoen eta senitartekoen bizi-kalitatea hobetzeko ekimenak erabiliz.
- Gizartea sentsibilizatzea, buruko gaixoak bete-betean gizarteratzea lortzeko.
- Gure elkarteen lana osatzen saiatzen gara, beste zerbitzu batzuk eskainiz, hala nola: zerbitzu juridikoa, espetxerako laguntza, oporretako aisialdia eta prestakuntza.

Autonomia-erkidegoko erakunde batzuetako organoetan ere parte hartzen du FEDEFESek: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean, Osasun Sailean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan, Gizarterako Euskal Kontseiluan, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian, Osasun Mentaleko Aholku Kontseiluan, Osasuneko Hirugarren Alorreko Batzordean.

FEDEFESek sare hauetan parte hartzen du: CONFEDERACIÓN SALUD MENTAL (Buruko gaixo eta senitartekoen elkarte-taldearen konfederazio espainiarra), eta, estatuko sarearen bitartez, EUFAMIn ere badago (Europako sare). EDEKA (Elbarrituen Ordezkarien Euskal Koordinakundea), SAREEN SAREA (Euskadiko hirugarren gizarte-arloko sareak).

FEDEFESek oso lan handia egin du orobat buruko gaixotasunen bat duten emakumezkoen alde bereziki, haiei bultzada emateko eta gizartea sentsibilizatzeko. Bi ikerlan egin ditu: **“Diagnostico sobre la situación frente a la igualdad de mujeres y hombres en Fedefes”**¹, 2014an argitaratua; eta **“Investigación sobre violencia contra las mujeres con problemas de salud mental”**, 2017an aurkeztua; eta gida bat ere argitaratu du, profesionalentzat **“Gida. Buruko Gaitza duten Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa”**², 2017 . Sentsibilizazio-lan handia egiten du gainera, kanpainak, bideoak eta abar erabiliz, www.mujierysaludmental.org, eta Facebooken badu atal berezi bat emakumea eta buruko osasuna jorrazteko, profil berezi bat baliatuz: Emakumea eta Buru Osasuna <https://www.facebook.com/mujersaludmental/>

Fedefesek badu, gainera, beste atal berezi bat emakumeen berdintasunerako.

KONTAKTUA:

Tel.: 94 4069430

fedefes@fedefes.org

www.fedefes.org

www.mujierysaludmental.org

¹ https://www.mujierysaludmental.org/sites/default/files/fedefes_folleto-empoderamiento-mujeres_recomendaciones-conclusiones.pdf

² http://www.fedefes.org/wp-content/uploads/2017/06/GUIA_Fedefes_estudio-violencia-genero-mujeres-con-enfermedad-mental_guia_web.pdf



FEVAS PLENA INCLUSIÓN EUSKADI (FEVAS)

Gizarte-ekimeneko antolakunde bat da, irabazi asmorik gabekoa, eta, 1980tik, adimen-desgaitasuna edota garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta beren senideen eskubideak sustatzea du helburu, Euskadin. Gizarte-intereseko erakunde aitortu zuten 2014an.

Bertan daude elkartuta adimen- edo garapen-desgaitasun eta haien senitartekoei Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzuak eskaintzen dizkieten familia-elkartek:

Araba: Apdema eta Usoa Babes Fundazioa.

Bizkaia: Apnabi-Autismo Bizkaia, Aspace Bizkaia, Futubide, Gauda eta Gorabide.

Gipuzkoa: Aspace Gipuzkoa, Atzegi, Atzegi Babes Fundazioa, Fundación Goyeneche de San Sebastián, Gautena eta Uliazpi.

FEVASek esku artean duen zereginik funtsezkoena da justizia sozial eta bizi-kalitate handiko gizartea lortzea, eta, hartan, adimen- edo garapen-desgaitasuna dutenak eskubide beteko herritarrak izatea.

ZER ELKARTETAN GAUDEN:

FEVAS hiru elkarte hauetako kide da:



PLENA INCLUSIÓN – CONFEDERACION ESPAÑOLA DE ORGANIZACIONES A FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL

www.plenainclusion.org



EDEKA – ELBARRITUEN ORDEZKARIEN EUSKAL
KOORDINAKUNDEA
www.edeka.es



SAREEN SAREA – EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE
SOZIALEKO SAREA
[www. sareensarea.eus](http://www.sareensarea.eus)

Informazio gehiago, hemen: www.fevas.org

KONTAKTUA:

Tel.: 94 421 14 76.

comunicacion@fevas.org



ZER DA ELKARTEAN?

1986. urtean eratu zen koordinatzailea gara; 35 elkarte batzen ditugu eta 16.000 bazkide baino gehiago ditugu Euskadi osoan. Desgaitasuna duten pertsona guztien aldeko lana egiten dugu, baina, desgaitasunaz harago ere bagoaz, gizartea eraldatzeko asmoz lan egiten baitugu eta, horrek, herritar guztiengan du eragina.

Honako hauek osatzen dute koordinatzailea: Eginaren eginez Araba Elkartu Gipuzkoa Fekoor Bizkaia

GURE ZEREGINA

“Gizartea eraldatu berdintasunera heltzeko”

ELKARTEANen lan egiten dugunon helburua da pertsona guztiak batzen dituen gizartea lortzea, eta gizarte hori irisgarria, justua eta bidezkoa izatea. Horrela, denok baliatu ahal izango ditugu gure eskubideak, bereizkeriarik gabe.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonak besteen aukera berdinak izan behar dituztela defendatzen dugu, eskubide osoko herritarrak baitira. Gizartea inklusiboa izan behar da, beraz.

Desgaitasuna duten pertsonen berdintasunaren eta gizareratzearen alde aurrera egiten dugun bakoitzean herritar guztien alde ere egiten dugu”.

NON GAUDE

ELKARTEAN

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de la C.A.P.V.

elkartean@elkartean.org

Tel.: 943 316 770



Gorren Familien Euskal Federazioa da FEVAPAS

1994an sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko gorren familien hiru elkarte batu zirenean:

Arabako ASPASOR, Bizkaiko ULERTUZ eta Gipuzkoako AransGi.

FEVAPAS lurraldeaz gaindiko erakundea da, Euskal Autonomia Erkidegoko hirugarren sektorekoa, eta entzumen-desgaitasuna duten pertsoneri eta horien familiei gizartearen barruan eskubide osodun herritar gisa errealizatzeko orduan agertzen zaizkien premiei irtenbide egokiak ematea dauka xede nagusi.

Honako hauek dira XEDE OROKORRAK:

- Familien bizi-kalitatea hobetzea
- Entzumen-desgaitasuna duten haurrei hezkuntza- eta osasun-arreta ematen zaiela bermatzea
- Eragindakoei eta horien familiei orientazioa eta laguntza ematea...

Beraz, FEVAPASEk honako lan hauek egiten ditu: Koordinazioa / Ordezkaritza / Aholkularitza / Ekarpen teoriko-praktikoak / Jarraipena / Aldarrikapena.

Gizartearen eremu GUZTIETAN (hezkuntzan, osasunean, gizartean, aisialdian, irisgarritasunean eta abarretan).

Eta MAILA GUZTIETAN (administrazio publikoetan, erakunde pribatuetan, familia-bizitzan, elkarte-mugimenduan, gizartean oro har...)

Halaber, hogeit hamar urte baino gehiago daramatza bere xedeak lortze aldera ezinbestekoak bihurtu diren programak garatzen: Familia-arloko programak eta jarduerak / Boluntariotzaren sustapena eta sostengua / Astialdian sozializatzeko jarduerak.



ONCE: DEMOKRAZIAZKO GOBERNU-SISTEMA

ONCE zuzenbide publikoko korporazioa da, soziala, eta 5/2011 Legeak babesten du. Bada, Legearen arabera, gizarte-ekonomiako entitate berezia da. Barne-demokraziaren printzipioan oinarritzen du funtzionamendua, eta itsuek (afiliatuek) oso-osorik hartzen dute parte erakundeko gobernu-organoak eta ordezkaritza hautatzeko eta eratzeko orduan.

Esan den moduan, erakunde soziala da, eta ONCEra afiliatuta dauden itsuen eta ikusmen-urritasun larria dutenen kolektiboari gizarte-zerbitzuak emanez gauzatzen du izaera sozial hori, estatuak eskuordetutako erantzukizun gisa. Bada, kolektiboaren bizitzako etapa guztiak hartzen ditu aintzat: haurtzarotik (non hezkuntza-inklusioaren alde egiten den lan) helduarora, autonomia pertsonalari, lan-txertaketari, irisgarritasun unibertsalari eta jarduera soziokulturalen nahiz kirol-jardueren sustapenari bide emanez, besteren artean.

ONCEk nortasun juridiko propioa dauka, baita jarduteko nahiz bere burua antolatzeko erabateko gaitasuna eduki ere. Halaber, erakundeko kideek demokratikoki hautatzen dituzte arduradunak. Lau urterik behin, ONCEra afiliatuta daudenek boto bidez aukeratzen dute nork ordezkatuko dituen aldi horretan.

1982ko urtarrilaren 19an, lehenengo hauteskunde demokratikoak egin ziren, eta botoa emateko eskubidea zuten afiliatuek sekretupeko boto zuzena eman zuten. Horrela, funtzionamendu-araubide demokratikoa txertatu zuen ONCEk, hauteskundearen ondoriozkoak baitira ordezkaritza-organoak (Kontseilu Orokorra eta Lurralde Kontseiluak). Orduetik hona, sei kontsulta egin dira, eta guztiek izan dute parte-hartze altua (% 70 ingurukoa).

Kontseilu Orokorra da gobernu- eta ordezkaritza-organo gorena. Hala, Erakundeak bere xede sozial eta solidarioa betetzeko orduan egonkortasun instituzional eta finantzarioa edukitzea zaintzen du horrek, eta giza eskubideekiko errespetua bultzatzen du, itsuak edota bestelako desgaitasunak dauzkaten pertsonak erabat gizarteratzea sustatzearekin batera. ONCEren lan soziala eratzen duten printzipioek eta elkartasun-balioek jarduera bat dute oinarri, eta estatuak gainbegiratzen eta kontrolatzen du jarduera hori, gardentasunaren eta baliabideen kudeaketa onaren alde egiten duen Babes Kontseiluaren bidez.

Bestalde, erakundearen jasagarritasunari eustea da diru-sarrera guztien xedea, lan soziala egiten jarraitu ahal izateari begira. Eta, azkenik, Kontseilu Orokorraren mende daude erakundeko jarduera osatzen duten hiru zuzendaritza-arloak: ONCEko Zuzendaritza Nagusia (joko arduratsua eta afiliatuentzako gizarte-zerbitzuak kudeatzen ditu), ONCE Fundazioa (lankidetzarako eta desgaitasunen bat dutenak gizarteratzeko arloa da) eta ILUNION gizarte-enpresen taldea.

ZIGILU OROKOR BAT, EREDU BAKAN BATERAKO

ONCE 1938an sortu zen, XX. mendeko hasierako hamarkadetako itsu espainiarren premiei erantzuteko asmoz. XXI. mende betean, hain justu ere 80 urte bete ditugun honetan, gizarteratzeko xedeei eusten diegu oraindik ere: desgaitasunen bat duten gainerako pertsoniei zabaldu diegu ekintza, eta herritar guztiak eskubidedun subjektu gisa berdintasun-maila berean kokatzeko gai den gizarte zibila sustatzen dugu.

Horixe da erakundeak zortzi hamarkada hauetan izan duen benetako bilakaera, beti ibili baikara gizartearen errealitateari lotuta. Hasieran, oinarrizko arreta emateko iraupen-erakundea ginen –hori bai, berritzailea beti–, eta, gaur, ONCE modernoa gara, kudeaketa demokratikoak sustatzen duena eta gizarteari etengabe irekitzen zaiona.

Bada, aurreranzko beste urrats batean eratu da ONCE talde sozialaren zigilu berria, jarduteko eremu guztietan eta bizitzako esfera guztietan gizartearen ondo-ondoan egoten jarraitu nahi dugula erakutsi nahi dugulako. Halaber, ONCEren, ONCE Fundazioaren eta ILUNION taldearen artean ekintzak bateratzeko eta sinergiak baliatzeko beste aurrerapauso bat da hau, xede berberarekin egiten baitugu lan beti: lurralde estatalean bizi diren ia lau milioi herritarrak gizartean erabat gizarteratzeko asmoan oinarritzen den gizarte- eta ekonomia-ereduak lortu nahi ditugu, eta ia lau milioi herritar horien bizi-kalitatea hobetu nahi dugu.

Horri begira, hezkuntzak eta enpleguak jarraitzen dute tresna giltzarriak izaten, baina ezin ditzakegu bazter utzi prestakuntza, irisgarritasun unibertsala, guztiontzako produktu eta zerbitzuen diseinua, inoiz baino beharrezkoagoak diren teknologia berriak eta bizitza independenterako sarbidea.

ONCEk bere historia guztian eutsi izan dio espiritu berritzaileari: haur itsuentzako lehenengo eskolak eta helduagoentzako lantokiak sortu genituen aurreko mendeko 60ko hamarkadan jada, emakumeei berdintasunezko tratamendu iraultzailea emanez; elkartasuna sustatu dugu desgaitasunen bat duten gainerako pertsonekin, ONCE Fundazioaren bidez; gizarte- eta ekonomia-errentagarritasuna posiblea dela erakutsi dugu enpresa-talde baten bitartez (orain, ILUNION da); desgaitasunaren inguruko elkarte-ehundura ardaztu dugu, Cermiko kide izanda

(EAEn, Edeka da); gizarte zibilaren bidezko herritarren ekintza sustatu dugu, hirugarren sektoreko plataformarekin edo CEPES patronalean multzokatuta dagoen gizarte-ekonomiarekin.

Eta, hori guztia, erabat sozialak diren ekimenekin bat eginez: Gida Txakurraren ONCE Fundazioa (FOPG); Latinoamerikako Itsuekiko Elkartasunerako ONCE Fundazioa (FOAL), 19 herrialdetan dagoena; Itsuentzako Kirolen Espainiako Federazioa (FEDC), ONCERen Fisioterapia Eskola (Madrileko Unibertsitate Autonomora atxikita dago) eta Gor-itsutasuna duten Pertsonen Arretarako ONCE Fundazioa, zeinak 10 urte bete dituen aurten, pertsona horien ondoan. Azken batean, balio-filosofia berberak, orientazio sozial irmoak, espiritu solidarioak eta egunero balioa sorrarazten duen ahaleginak batu duten ONCE talde soziala gara.



EUSKAL GORRAK (Gorren Elkarteen Euskal Federazioa)

Irabazi-asmorik gabeko entitatea da, eta 1980an sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko gorren askotariko elkarteak biltzeko eta ordezkatzeko premiaren ondorioz. Entitate solidario, ireki eta anitza gara, demokratikoa eta politikoki independentea: gorrek parte hartzeko eta horiek ordezkatzeko gunea gara. Euskal Autonomia Erkidegoko gor guztiak babestea eta horiek ahalduntzen laguntzea da gure xedea, bai eta elkarte-sarea indartzea eta zeinu-hizkuntza oinarrizko giza eskubide gisa babestea ere.

Aniztasunarekiko, kulturarekiko, gorren identitatearekiko eta komunitatearekiko nahiz zeinu-hizkuntzarekiko errespetutik abiatzen da gure filosofia; hau da, ezberdin egiten gaituen baina elkartzen gaituen horrekiko errespetuan oinarritzen gara. Aniztasunaren aberastasunean eta gorrok gizarteari egiten diogun ekarpenean sinesten dugu; horixe da entitate honen jarduketatildoa markatzen duen printzipioa.

Hala, gure jarduketatildoetan, gobernu-organoetan eta talde profesioaletan islatzen da filosofia hori. Euskal Autonomia Erkidegoko gorra ahalduntzea eta erabateko autonomia edukitzea da Euskal GorraK federazioaren azken helburua, eta, horri begira, gure elkarte-mugimenduaren printzipio bereizgarritik abiatzen gara: «Ezer ere ez gorrentzat, gorrik gabe».

Gorrek euskal gizartean guztiz gizarteratzea eta bertan parte hartzea lortzeko helburuz egiten dugu lan guztia, eta, horretarako, gure egunerokotasuna zailtzen duten komunikazio-oztopoak kentzen ditugu, eta gorren komunitatearen elkarte-mugimendua nahiz gure hizkuntza eta kultura babesten eta sustatzen ditugu. Halaber, balio garrantzitsuak defendatzen ditugu; hala nola, genero-berdintasuna, ingurumenarekiko errespetua eta euskararen sustapena.


Gorrek parte hartzeko eta horiek ordezkatzeko gunea izateaz gain, lankidetzan egiten dugu lan, eta aliantzak bilatzen ditugu gure kezka eta balio berberak dauzkaten entitateekin; izan ere, Euskal GorraK federazioa erakundeen aurrean erreferentea izaten jarrai dezala nahi dugu, eta gure eskubideak, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza aldarrikatzen ditugu.



Hartutako Kalte Zerebralaren Euskadiko Elkarten Federazioa da **FEATECE**. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru elkarte probintzialak (ATECE ARABA, ATECE BIZKAIA eta ATECE GIPUZKOA) biltzen ditu, eta hiru erakunde horien lotunea izateko helburuarekin egiten du lan.

Hartutako kalte zerebrala duten pertsonen eta horien familiei arreta eta laguntza-baliabideak eskaintzea da hiru **elkarte horien** xedea, baina, horretaz gain, sentsibilizazio- eta aldarrikapen-lana ere egiten dute, kolektiboaren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetze asmoz. Profesionalen talde batek, familiek eta boluntarioek eratzen dute elkarte bakoitza.

Garunean bat-batean gertatzen den lesioaren ondorioa da **HARTUTAKO KALTE ZEREBRALA**. Ez da endekapenezko gaixotasuna, eta hainbat arrazoiengatik ager daiteke; hala nola, iktus batengatik, traumatismo kranioentzefaliko batengatik (trafikoko istripu baten edo eraso baten ondoriozkoa, adibidez*), tumore batengatik edo bestelako patologiengatik. Hartutako kalte zerebrala baten ondorioz, asaldurak ager daitezke maila fisikoan, psikologikoan nahiz kognitiboan. Azken horiei heltzen die dokumentuak.



FASOCIDE - Espainiako Pertsona Gor-itsuen Elkarten Federazioa

FASOCIDE 2011n sortu zen, ASOCIDE elkartearen lurralde-ordezkaritzei autonomia-erkidegoetako gaiak kudeatzeko autonomia handiagoa emateko xedez.

Hain zuzen, urte horretako Ezohiko Batzar Nagusian ekin zion bere ibilbideari, ASOCIDE elkarteak bazkide-fundatzailea izatea erabaki zuenean, Valentziako Erkidegoko Pertsona Gor-itsuen Elkartearekin, Euskadiko Pertsona Gor-itsuen Elkartearekin eta Kataluniako Pertsona Gor-itsuen Elkartearekin batera. Hala ere, FASOCIDE ez zen 2012ko otsailaren 3ra arte osatu.

FASOCIDEk, pertsona gor-itsuen ordezkariak bere gain hartuta, haien interesak eta eskubideak babesten ditu administrazioen eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean. Baita erkidego-mailan eta desgaitasuna duten pertsonen kolektiboarentzako laguntza-zerbitzuen aurrean ere. Hala, pertsona gor-itsuen gizarteratze erabatekora bideratutako politika integralak garatzea bultzatzen du, aipatu kolektiboak Espainiako gizarteran parte har dezan gainerakoen baldintza berdinetan eta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko NBERen Konbentzioak aitortzen dizkion eskubide guztiekin.

ELKARTEAK

- ASOCIDE - Espainiako Gor-itsuen Elkarte
- ASOCIDE ANDALUCÍA - Andaluziako pertsona gor-itsuen elkarte
- ASOCIDE ARAGÓN - Aragoiko pertsona gor-itsuen elkarte
- ASOCIDECAT - Kataluniako pertsona gor-itsuen elkarte
- ASOCIDECV - Valentziako erkidegoko pertsona gor-itsuen elkarte
- ASOCIDE EUSKADI - Euskadiko Pertsona Gor-itsuen Elkarte
- ASOCIDE CANARIAS - Kanarietako pertsona gor-itsuen elkarte
- ASOCIDE COMUNIDAD DE MADRID - Madrilgo erkidegoko pertsona gor-itsuen elkarte
- ASOCIDE REGIÓN DE MURCIA - Murziako pertsona gor-itsuen elkarte

EMAKUME GOR-ITSUEN FASOCIDE-REN ESTATU BATZORDEA

Emakumearen Atala 2016an ezarri zen FASOCIDE n, emakume gor-itsuen premia espezifikoei erantzuna emateko helburuarekin. Haren buru Marina Martín Rodríguez da, gor-itsutasuna duen emakumea, eta FASOCIDE osatzen duten pertsona gor-itsuen hainbat elkarteren emakumearen atalak ikuskatu eta koordinatzen ditu.

Horrez gain, Marina Martín Rodríguez Madrilgo Erkidegoko ASOCIDEren Emakume Gor-itsuen Batzordearen arduraduna da, eta elkarte horren presidentea.

Arazo honek berdinean eragiten die emakumeei zein gizonei. Hala ere, beti bezala, emakume izateak are gehiago okertzen du egoera.

Genero-indarkeriaren aurkako egunak bizi ditugu, baina indarkeria ez da soilik fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa... Oro har, komunikazioa ez da eskubidetzat hartzen, eta ez gara ohartzen gor-itsutasuna duten pertsonen, komunikazio-eskubidea ukatuta dutenez, jasaten duten indarkeriaz. Ondorioz, autonomia eta erabakitze ahalmen oso txikia edo hutsala dute, eta, horregatik, beste pertsona batzuek haien izenean pentsatu, erabaki edo jarduten dute.

Ezinbestekoa da komunikazio-eskubidea aitortzea. Aitorpenak berekin ekarriko du emakumearen eta ingurunearen arteko komunikazioa eraginkorra izateko behar diren tresnak emateko premia. Horretarako, ezinbestekoak dira zeinu-hizkuntzako interprete-gidariak.

Gor-itsutasuna duten emakumeek gizarte inklusibo batean era aktiboan parte hartzeko, behar-beharrezkoa da, lehenik eta behin, haiek identifikatzea, eta gero, komunikazio-tresnak eskaintzea.

Baliabide horiek erabiltzeko aukera balute, inklusioa normalizatu ahal izango zatekeen hezkuntzan, lan-arloan, kulturean, aisian, etab. Horrez gain, emakumeen premia zehatzei erantzuteko programa espezifikoei eskainitako prestakuntza eta informazioa eskuratuko lituzkete hainbat gaitan: osasuna, amatasuna, familia-bizitza, jaiotza-kontrola, genero-indarkeriari buruzko prestakuntza eta tratu txarrak salatze lekuak eta modua.

Emakume gor-itsuek prestakuntza behar dute maila eta norabide guztietan.

Bestela, aski zaila izango zaie aukera-berdintasuna erdieste berdintasun-baldintzak izateko bermerik ez duten bitartean.

Horien oinarri dira, oro har, identifikazioa eta komunikazioa.